

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektua, altzari batzuk saltzen dituen enpresa bat izango da. Sinplea dirudien arren, ez da hain erraza; izan ere, saltzen ditugun altzariak ez dira nola nahi eginiko altzariak, birziklatutako materialez osatuta baitaude. Gainera, errezikaltutako materialez osatuta izatea ez da gure produktuaren berezitasun bakarra, guk, salduko ditugun produktuei ez diegulako erabilgarritasun finko bat emango, anitza baizik.

Horrez gain, ikus posible dugu gaur egungo altzariak, askotan, forma batekoak bakarrik izan daitezkeela eta espektatiba hori hauste aldera ere, gure erosleei beraiek nahi dituen forma, kolore eta beste ezaugarri batzuk aukeratzeko aukera eman nahi diegu.

Hasieran hiru altzari mota kaleratuko ditugu gure enpresa aurrera eramateko, denbora baten ondoren eta gure bezeroei entzun ondoren, diseinu berriak kaleratzeko asmoa dugu.

Gure hiru altzariak “hainbat aulkitan bihurtzen den mahai txikia”, hau da, egon gelan bertan egon daitekeen mahai txiki bat da eta hortik hainbat aulkitxo atera daitezke mahaia deseginez. “Apal bihurtzen den mahia” da beste bat, berez apal funtzioa betezen duena, baina etzanez gero mahai bihurtzen dena. Azkenik, “paretan gorde daitezkeen literak” jarriko ditugu salmentan, hauek, azpian ohe handi bat edukiko dute eta gainean banakako ohe bat. Ohe horretara iritseko, ohe handiko alde batean, eskailera batzuk egongo dira eta litera gordetzeko, azpitik altxa eta paretera bultzatu beharko da soliki.

Gure produktua garrantzitsua dela iruditzen zaigu; izan ere, eta nahiz eta merkatuan iada halako formako altzariak izan, adibidez, armairu bat, mahai bat bihurtzen dena, iruditzen zaigu, ez dutela gure ingurumena kontuan hartzen eta ingurumena geroz eta larriagoa den garaian, garrantzitsua iruditzen zaigu, ingurumenaren alde egiteko proposamena edukitzea.

Lehen adierazi bezala, birziklatutako materialez osatutako altzariak egingo ditugu, eta hartarako, hainbat produktu desberdin erabiliko ditugu. Horren adibide, erretxina izan daiteke. Erretxina plastikoen egitura kimiko polimeroak dira, monomeroz edo pisu molekular txikiko konposatu kimikoz eginak. Iruditzen zaigu, erretxina erabiliz, gure produktuei egonkortasuna emango diolako.

Zura birziklatzeko prozesua material hori hainbat lekutan biltzearekin hasten da, hala nola eraikuntza- eta eraipen-industrian, paletetan eta bilgarrietan, eta partikularrek sortutako zur-hondakinetan. Bildu ondoren, zura beste hondakin batzuetatik bereizten da birziklatze-instalazioan, eskuzko sailkapena eta bereizgailu magnetikoen erabilera bezalako metodoak erabiliz. Prozesu horrek bermatzen du zurak ez duela ezpurutasunik eta prest dagoela ondoren eraldatzeko. Hurrengo urratsa egurra txirbilez edo zerrautsez birrintzea da. Ekintza honen helburua produktu uniforme eta maneigarri bat lortzea da, ondoren hainbat aplikaziotan erabiltzeko.

Zuraren birziklapenak ingurumen-inpaktu positibo esanguratsua du. Egur birjinaren eskaria murriztean, zuhaitzak moztea saihesten da eta baliabide naturalak kontserbatzen dira. Gainera, zura birziklatzeak karbono-isuriak murrizten eta zabortegetako hondakinak murrizten laguntzen du.

Ez hori bakarrik, gure balorezko proposamenaren funtsa erreziklapena den horretan, garrantzitsua iruditzen zaigu zenbat altzari botatzen diren urtero adieraztea. Adibidez, "EL ESPAÑOL" aldizkarian adierazten duten bezala, urtean enpresek 10.000 milioi altzari botatzen dituzte zakarretara. Horrez gain, geroz eta altzari gutxiago saltzen dira bigarren eskuko dendetan.

Bestalde, zuraren ekoizpenak 1,2 Gj/m³ energia inguru erabiltzen du eta metro kubiko bakoitzeko -838kg karbono isurtzen dira; lehengaien eta altzarien garraioak ere izan ohi du ingurumenean inpaktua. Amaitzeko, Europar Banatasunaz eta Estatu Batuaz gain (gehien kontsumitzen duten sektoreak), India eta Txina bezalako ekonomia emergenteak zuraren eta altzarien esportatzaile handi bihurtu dira eta gaur egun, esan genezake hornitzaile handienak Txina (% 28), Polonia (% 19) eta Italia (% 8) direla.

Gainera, gaur egun etxebizitza asko oso txikiak dira eta beste batzuk, hotelak bezala, espazioa aprobetxatu nahi dute. Horretarako, gure altzariak oso erabilgarriak dira; izan ere, etxea txikia izanik, toki gutxiago okupatuko dute altzariak espazioa hobeto aprobetxatuz.

Gure beste helburuetako bat produktuaren pertsonalizazioa da; hau da, gure produktua erosten duten pertsonak aukera izango luteke nahi duten dekorazioa izateko, hala nola, kolorea, forma... oso erabilgarria iruditzen zaigu; izan ere, pertsona bakoitza mundu bat garen horretan, denek ez ditugu gustu berdinak eta denok altzari berdinak edukitzea, kolore berdinarekin, forma berberarekin... oso aspergarria nahiz sinplea iruditzen zaigu.